

## **LIBERTADEN MEMORIA**

### **OSKIA RAMÍREZ BARAZE**

**HITZ GAKOAK:** zapalduen historia, historia lokaletik historia globalera, emakumeen historia, memoria historikoa, bakerako hezkuntza.

#### **LIBERTADEN MEMORIA; LABURPENA**

Unitate didaktiko honek 1930. hamarkadaz geroztiko testuinguruan Europan bizi izan ziren gertaerak hartzen ditu ardatz, Espainiako gerra zibiletik, II. Mundu Gerrara eta gerra ondoko garaia. Xede nagusia, alabaina, ez da historiako gertakari hauek ikuspuntu beliko eta politiko soiletik lantzea, Europan garai horretan bizi izan zen mamu autoritario, faxista eta errepresiozilea, gerrak eta indarkeriak duen zentzugabekeria eta giza kalteen ordaina lantzea baizik. Gai hauek mahaigaineratuz, egungo gizarteek memoria historikoa izatearen garrantzia nabarmendu nahi da. Zapalduen historia ezagutaraziz eta iragan traumatiko zein bortitzaren irakurketa kritikoa eginik, hiritartasun demokratikoaren heziketari ekarpen txikia egin nahi izan zaio. Izan ere, hezkuntzan memoria historikoari tartea eskaintzea, bizikidetzaren baloreak goresteko bidea da, eta baita etorkizuneko gizarte solidario eta justua eraikitzeko ezinbestekoak diren zutabeak jartzeko bidea ere.

Aipatutakoa erdiesteko, orain arte historiografia ofizialean protagonismo zuzenik izan ez duten pertsona eta kolektiboen memoria erreskatatu eta balorean jarri nahi izan dira. Genero ikuspuntuari erreparatuz, garai horretan bizi izan ziren hainbat emakumeen istorioa ezagutaraztea izan da asmoa; emakume ekintzaile eta nabarmenduak faxismoaren aurkako borrokan, justizia soziala, feminismoa eta demokraziaren defendatzaile sutsuak izandakoak, zeinen adorea eta lana bigarren plano batean ezkuturik egon ohi den. Protagonista hauek asko gainera, jatorri nafarrekoak dira, ikasleak horrela, anitzetan ezezaguna duten historia lokalera hurbilduz.

Esperentzia didaktiko honekin ikasleek, modu bibentzial batean, (zehazki historialari gazte baten azalean sartuak eta Libertad Uriz Ugarte fikziozko pertsona baten bizitza berreraikiz), Europako historia garaikidea "beste modu batez" ezagutzeko aukera izanen dute; XXI. mendeko gizarteak dituen hamaika erronkei tolerantziaz eta errespetuz aurre egiteko erremientak emanen dizkien itxaropenarekin.

## **LIBERTADEN MEMORIA; FIKZIOZKO ISTORIO ERREALA**

Libertad Uriz Ugarte Iruñean, 1918.urtean eta familia errepublikar ezkertiar baten magalean jaiotako alaba dugu, oso gazte zela, zehazki 1936.urteko udan, bere ustezko izeba Josefa eta Pepita Uriz Piekin Bartzelonara bizitzera joan zena. Bertan harrapatu zuen militarren estatu kolpeak eta gerraren eztandak. Bando errepublikarreko milizietan parte hartu ondoren, Frantziara ihes egin behar izan zuen 1939.urtean, jakin gabe oraindik, bere aita Iruñean kolpistek fusilatu zutela. Frantzian, beste hamaika errefuxiatu errepublikarren antzera, kontzentrazio esparru batean itxita egon zen hilabete batzuen buruan, zehazki, Gursen, nor eta Julia Alvarezek bertatik ateratzea lortu zuen arte. Parisera abiatu zen orduan bere izebekin eta haiekin eta beste zenbait komunistekin, (Miret anaiekin, Monzonekin...) erresistentzia frantsesaren edo makien parte izatera pasa zen. Parisen dagoela, Iruñean gelditu den bere amaren berri jasotzen du, (bestelako emakume askorekin batera, Ezkabako gotorlekuan zeuden presoentzako elkartasun sarea osatu zuena). 1943.urtean Gestapok atxilo hartuta, Ravensbrückera bidalia izan zen, bertan, holokaustoaren biktima bilakatuz eta egoera latz bezain gordinak pairatuz. Hala ere, beste zenbait emakumeekin batera, (zeinen artean Neus Catalá, Lise London edo Marie Vaillant Coutier zeuden), nazien armamentua sabotatzea lortu zuen. 1945.urteko udaberrian, ejertzito gorriak esparrua askatzean, Mauthausenera abiatu zen ahal izan zuen modura, bertan baitzegoen bere bikotea preso, nor eta Francesc Boix kataluniarra. Elkarrekin Nurenbergen epaiketek iraun bitartean egon ziren eta ondoren berriz ere, Parisen finkatu zen. Bertan zegoela, bere izebekin UMAE eta FDIM erakundeentzako buru belarri jardun zen, noiz eta Frantziako gobernuak komunista izateaz leporatuta herrialdetik kanporatu zuen arte, bere bizitzako bigarren erbestealdia ezagutuz. Espainia frankistara itzultzeko aukerak moztuta zituen eta ez zuen ere bertara bueltatzeko indarrik, are gutxiago, bere amaren heriotzaren berri jaso zuenetik, (frankisten umilazio, zigor eta errepresioak eragindako senda ezina zen minari ezin eutsi hil zena). Berlinen amaitu zuen Josefa eta Pepitarekin bizitzen, baina Berlinera abiatu aurretik, Titoren Jugoslavia sozialistara bidaia egin nahi izan zuen, gaztetan espainiar gerra zibilean ezagutu zuen Koka Popovic bere lagun brigadista bisitatzera. Haren eskutik jaso zuen ustaxek egindako basakerien berri eta Jasenovaceko estermínio zelaia bisitatu zuen amorruez beteta eta jakin gabe, horren guztiaren arduradun nagusienak erregimen frankistaren babespean bizirik zirautela, (Luburic eta Pavelic bera).

Bere bizitzaren azken egunetan Berlinetik Ane Zaritieggi Ezker historialari gazteari Libertadek gutun bat idatziko dio. Honekin batera, kutxa preziatu bat bidaliko dio ere, dokumentu, argazki,

artikulu, eta abarrez beteta, bere bizitza berreraiki dezan eskatuz, pairatutako guztia eta askatasunaren alde egindako bizi borroka paregabea ezerezean gera ez daitezen, eta milaka pertsonen zapalkuntza zein borroka oroi daitezen.

### **LIBERTADEN MEMORIA UNITATEAREN HELBURU NAGUSIENAK**

Libertaden memoria, memoria historikoa zein europar historia garaikidea lantzeko eta ikasleentzat bizipen esperientzia bat izateko helburu duen unitate didaktikoa da. Ikasleek, modu autonomoan eta taldeka, Libertad Uriz Ugarte izeneko fikziozko emakume baten istorioa berregin behar dute. Deskubritzen duten historia alabaina, ez da fikziozkoa, erreal baizik. Izan ere, Libertad existitu ez arren, bere istorioa emakume erreal ezberdin askoren istorioetan oinarriturik eraiki da eta bere bizipenetan ageri diren gertakari eta pertsonaia guzti guztiak, benetakoak dira. Rol joko baten gisara, ikasleak Ane Zaritieggi Ezker izeneko neska gazte historialari baten azalean sartu eta Libertaden bizitzaren berreraikipena egiten joanen dira. Horrela, bete betean 1930-60. hamarkadetako testuinguru historikoan murgildu eta normalean eskoletako testu liburuetan islatzen ez den historia ezagutuko dute. Izan ere, unitate didaktiko honen helburu nagusienetako bat, historia politiko, instituzional eta militarretik haratago doan historia lantzea da. Honetarako, kutxa batean dauden argazki, mapa, dokumentu historiko, egunerokoak, gutunak... hizpide izanen dituzte eta zenbait dokumentu historiografikoen irakurketaz lagunduta, Libertaden bizitza berreraikitzea erdietsiko dute. Libertaden istorioan murgilduta, lehen pertsonan bizituko dituzte milaka eta milaka pertsonen historiako gerra pasarte bortitzenetako batean jasan zituzten egoerak, errepresioa, borroka antifaxista, erbesteratzeak... Gertakari historiko hauei guztiei bide batez, ikuspegi geografiko zabala eman nahi izan diegu, Nafarroako, estatu espainiarreko eta Europako bazter ezberdinetan jazotakoaren aldiberekotasuna erakutsiz. Ohikoa izaten baita gure curriculumetan historiaren gertakari zenbait banatuta lantzea, lotura askorik gabe gai ezberdinak izanen bailitzan. Hau ekidite aldera, Libertaden istorioa Nafarroan hasiko da, eta hau bistaz galdu gabe, Espainiara, Frantziara, Alemaniara, Jugoslaviara ... hedatuko da, kronologikoki han eta hemen gertatu zirenak elkarlotuz. Unitate honekin beraz, historia gertukoa ezagutzeaz gain, honi dimentsio europarra emanen diote ikasleek.

Aipaturiko eduki historikoak mahai-gaineratzeaz gain, Libertaden memoria unitateak hausnarketarako proposamen didaktikoa izan nahi du. Izan ere, ikasleen iritzi kritikoa sustatzearekin batera, bakerako hezkuntzan eta errespetuzko bizikidetzan oinarritzen den gizartea eraikitzearen beharra transmititu nahi ditu, memoria historikoa ezagutu eta bizirik mantentzearen garrantziaz ikasleak hausnarraraziz. Unitate didaktikoak bide batez,

historialariek ahaztuta izan ohi dituzten pertsona, borroka eta kolektiboekin justizia egin nahi du, hauetako batzuk ezagutzera emanaz. Nagusiki emakumeena, hauek izan baitira historia “ofizialak” bazterren utzi ohi dituenak.

Unitatea didaktikoa DBH 4.mailako gizarte ikasgaietan, Batxilergo lehenengo mailako Mundu Garaikidearen Historiako ikasgaietan edo batxilergoko Nafarroako Geografia eta historia aukera gaitan lan

daiteke. Unitate didaktikoa halaber, proiektu handiago baten abiapuntua izan daiteke, bai gizarteko mintegian garatzeko edo baita, mintegi ezberdinetako koordinaziotik jaio daitekeen diziplina arteko proiektua bilaka daitekeela ere.

Unitate didaktikoan eskatzen den zeregina gauzatzeko ikasleek 7 klase egun izanen dituzte, nahiz eta gure esku egongo den malgutasunez jokatzeari, (batez ere DBH 4.mailako ikasleekin). Azken klase egun bat gomendatzen da irakasleak azken hausnarketa saio orokor bat zuzentzeko.

## **ABIAPUNTUA ETA IBILBIDEA**

Unitate didaktiko honen abiapuntua 2018.urtean kokatu behar da. Urte horretan, Nafarroako Gobernuak memoria historikoaren institutuak, Iturrama BHI-n geunden gizarte mintegiko irakasleei proposamen didaktiko baten diseinua egiteko eskaera egin zigun. Kontua zen, 2018-19. ikasturtean *Donde el bosque se espesa* antzezlanaren antzezlanari Gayarren ikusgai egonen zela bigarren hezkuntzako nafar zentroetako 1500 ikasle ingururentzat; eta Nafarroako memoriaren institutuak komenigarri ikusten zuten, antzerkira joan baino lehen, honetan azalduko ziren gaiak nola edo hala aurretik landuak egotea ikasgeletan, (antzezlanari ahalik eta etekin gehien atera ziezaioten ikasleek). Laia Ripollen lan hau Europar Batasunak berrikuntza eta ikerketa lana sustatzea helburu zuen Unrest-Horizon 2020 proiektuak, (Europar memoria lantzearen problematika mahai gaineratzeko intentzioarekin sortutakoak), finantzatutako antzezlanaren eta mintegi kideok obra ikusi eta berehala ohartu ginen, antzezlan maisua bezain korapilatsua



*Libertaden maleta eta unitate didaktikoa*

zela ikasleentzat. Obrak alabaina, aukera ezin hobea luzatzen zigun historia garaikidearen pasarte errepresiboenak ikuspegi europar zabaletik lantzeko. Izan ere, *Donde el bosque se espesa* antzezlanak testuinguru historiko zabala hartzen du, (II. Errepublika, Gerra Zibila, Bigarren Mundu gerra, Balkanetako gerra) eta memoria historikoa bizirik mantentzeko premiaren inguruan hausnartzeko aukera luzatzen du. Gai hauek guztiak ikasleekin modu sakonean lantzeko aukera ikusita, Memoriaren Institutuko kideei baiezkoa eman genien baldintza bakar batekin; ez genuen klase pare batean lantzeko jarduera solte bakar batzuen diseinua eginen, denbora zein seriotasuna eskatzen zuen eta berrikuntza pedagogikoan oinarrituriko unitate didaktiko bat baizik. Hasieratik oso argi izan baikenuen bi ardatz horiek oinarri hartu nahi genituela. Alegia, memoria eta berrikuntza uztartzeak ezinbestekoa behar zuen izan, ikasleak gaiarekin inplikatzeko eta hunkitzea baitzen gure xede nagusia eta honetarako, proposamena ikasleentzat motibagarria eta berritzailea izatea funtsezkoa baitzen. Asmo hauei guztiei erantzuteko, diseinatuko genuen unitate didaktikoa ikaskuntza egoera batean oinarriturik egongo zela adostu genuen.

Gure institutuan, Iturrama BHIn, aspaldi ari ginen metodologia berritzaileetan formatzen eta modu batera edo bestera, ohituak geunden proposamen didaktikoak norabide honetan diseinatzeko. Baina memoria historiakoaren gaiari ere, zuzentasun guztiz heldu nahi genion eta horregatik, jada aipatutako Unrest memoria historikoa lantzeko proiektu europarraren oinarriak ikertu eta ardatz hartu genituen. Izan ere, gure unitate didaktikoak bete betean bat egiten du Unrest delakoaren helburuekin, haiekin bat eginik ulertzen baitugu guk ere historia lantzeko modua eta honek izan beharko lukeen funtzioa. Unrestek zehazten duen legez, historiaren funtzioa nagusia izan beharko litzateke gertaera traumatikoen kontakizun koherente bat sortzea, eta kontakizun horrek halaber, populismoen mintzaldi faltsutzaile eta manipulatzaileak desaktibatzen dituzten antidotoa behar luke izan. Alegia, ikasgelan historia, egiazkotasuna eta hausnarketa egiteko tresna gisa erabili beharko genuke. Eta premisa hauek guztiak abiapuntu harturik hasi ginen unitate didaktikoa diseinatzen.

2018ko urrirako lehen zirriborroa prest genuen, *Donde el bosque se espesa* edo *Basoa trinkotzen den gunea* izenez bataiatu genuena. Azaro bitartean proposamen didaktikoa Nafarroako institutu ezberdinetara hedatu zen eta irakasleontzako ILZk urtero proposatzen duen memoria historikoaren ikastaroan ere aurkeztu genuen. Jakin badakigu, zenbait zentroetan, gurean kasu, 2018ko azaroan zehar ikasleekin unitatea landu zela, hain zuzen ere, antzezlanak ikustera joan aurretik.

Unitatea landu ostera jaso genituen balorazioak onak izan ziren. Gure zentroko ikasle gehienek esaterako, esperientzia bikain baloratu zuten, asko gustatu baitzitzaizkien bai landutako gaiak, bai eta hauek lantzeko modua ere, hots, metodologia. Hau ikusita, aho batez erabaki genuen Iturruma BHIko gizarteko mintegi mailan, unitate didaktikoa gure batxilergoko ikasleekin etorkizunean lantzen jarraituko genuela. Alabaina, unitateak berak moldaketa bat behar zuen. Batetik, testuinguru historikoa zertxobait murriztu behar genuela kontziente ginen, ezen Balkanetako gerrak bere gain hartzeak zailtasun handiak suposatzen zizkigun denboralizazioa aldetik. Bestetik, eta jakinik jada etorkizunean ez zela *Donde el bosque se espesa* antzezlanaren berriz zuzenekoan ikusteko aukerarik egonen, unitate didaktikoaren eduki batzuk moldatu genituen, helburuetako bat orain, ez baitzen jada antzerkia ongi ulertzea, memoria historikoaren lanketa egitea baizik. Eta azkenik, hasierako zirriborro horrek zituen zenbait akats zuzendu beharra genituen.

Unitatea moldatzen eta berritzen ari ginela, Nafarroako memoriaren institutuko kideek egiten ari ginen lana editatzeko proposamena luzatu ziguten. Eta hilabete batzuetan zehar buru belarri ikertzen eta idazten aritu ondoren, 2020ko udazkenean orain esku artean duzuen unitate didaktikoa editatu zen, Cristina Palacios Belloso eta Oskia Ramírez Barazek egina eta jada aipaturiko memoriaren institutuak editatua.

## **EDUKI HISTORIKOAK ETA HAUEN JUSTIFIKAZIO DIDAKTIKOA**

Jada aipatu dugun legez, unitate didaktikoaren protagonista nagusia batetik, eta honen bizitza ikertzeaz arduratzen den pertsona bestetik, urrez urren Libertad Uriz Ugarte eta Ane Zaratiegi Ezker, fikziozko pertsonaiak dira. Eta hau horrela izatearen arrazoiek helburu jakin batzuei erantzuten diete. Ane ustezko historialari gaztearen kasuan, ikasleak bere azalean sartzeak zereginen inplikatzeko nahiari erantzuten dio. Alegia, ikasleek rol hori hartzeak, Libertaden bizitza ikertzeko eta honen berreraikipen grafiko eta literarioa eraikitzeke enpatia handitzen duela uste dugu. Libertad fikziozko pertsonaia izateak bestalde, ikasleak guk nahi genituen gertaerekin eta pertsonaia historiko ezberdinekin konektatzeko aukera ematen digu. Izan ere, pertsonaia erreal baten bizitza berreraikitzeke hautua egin izanak gure helburu hori mugatuko luke. Fikziozko pertsonaia ordea, hau nahi dugun espazioan eta denboran koka dezakegu, honela, ikasleak interesatzen zaizkigun pertsona eta gertaera historikoetara hurbilduz. Honek bidenabar, aukera ematen digu zilegitasun historikoa mantentzeko. Izan ere, unitate didaktikoan agertzen diren pertsona eta egoera historiko guztiak zuzenak eta errealak dira; hori guztiz errespetatu da, fikziozko bakarra izanik, hauek guztiek Libertadekin gordetzen duten harremana.

Beraz, unitate didaktikoak aukera luzatzen du espazio zabal batean pertsonaia historiko ezberdinak ezagutzeko eta hauen bizipen errealen bitartez, gertaera historikoetan gehiago sakontzeko. Hona hemen, unitate didaktiko honen bitartez lantzen diren pertsonaia eta gertakari historiko nagusienak:

### ***Uriz Pi ahizpak; gure unitatearen ardatz***

Aitortu beharra dago gure lan honen inspirazio iturri nagusia Josefa eta Elisa Uriz Pi ahizpak izan zirela eta hauen bizitzak ardatz izan genituela Libertaden fikziozko istorioaren hariak ehortzeko. Uriz Pi ahizpak Libertaden ustezko izebak dira eta haiekin egingen du Libertadek bere bizitzaren ibilbide nagusia 1936.urteko estatu kolpearen unean



*Uriz Pi ahizpak*

geroztik. Ikasleek Libertaden bitartez Uriz Pi ahizpek hezkuntza mailan eta maila politikoan egindako ekarpenak ezagutuko dituzte, (orain gutxi arte itzalean egondakoak eta azken urteetan, bereziki Martorellen ikerketei esker, berreskuratuz joan direnak). Ikasleek nafar emakume hauek hezkuntza mailan egindako parekidetasunaren aldeko borroka eta metodologia berritzaileak eskolaratzearen aldeko apustuaren berri izanen dute. Era berean, estatu espainiarrean ideologia komunistarekin loturiko alderdi politiko ezberdinak ezagutuko dituzte, hala nola, Katalunian horrenbesteko indarra izan zuen PSUC alderdia. Haien bitartez ere, gerra zibilean hurrekin zenbait kolektibok egindako lanaz jabetuko dira eta baita, feminismoaren aldeko borrokan eta emakumeak politika mailan inplikatzaren garrantzian emandako pausuez ere, (Uriz Pi ahizpak II. Errepublikaren testuinguruan emakume espainiar antifaxisten elkartearen sorrera sustatu baitzuten eta gerora, FDIM eta UMAEko elkarrean buru belarri aritu baitziren). Halaber, II. Mundu Gerraren testuinguruan gauzatutako erresistentzia antifaxistaren berri izanen dute ere. Unitatea didaktikoan orobat, Uriz Pi ahizpen bizitzaren beste pasarte bat ere erabili nahi izan dugu, hain zuzen ere, aski ezaguna ez den eta Gerra Hotzaren testuinguruan Frantzia jazoako *operación bolero* delakoa, zeinaren eraginez, ehunka errefuxiatu komunista Frantziatik ihes egin behar izan zuten.

### ***Erresistentzia antifaxista***

II. Mundu Gerraren testuinguruan errepublikar iheslariak Frantziako erresistentzian izan zuten papera nabarmentzea garrantzitsua iruditzen zitzaigun eta gai hau zeharka bazen ere lantzea ezinbestekotzat ikusi genuen. Izan ere, curriculumean eta testu liburuetan askotxo hitz egiten da II. Mundu Gerraren garapenaz, baina batez ere, ikuspuntu belikotik landuta eta bataila handietan jarririk fokua. Alabaina gutxitan mintzatzen da Frantziara ihes egindako miloi erdi espainiar errepublikar horietariko askoren patuaz II. Mundu Gerraren testuinguruan. Libertadek, jada aipatu den legez, erresistentzia antifaxistan parte hartuko du eta honen eraginez naziek preso hartuko dute. Libertaden istorioaren keinu txiki honen bitartez, borroka antifaxistan jardun zuten pertsona guztien errekonozimendua egin nahi izan dugu, gure ikasleei honen berri emanez.

Uriz Pi ahizpen sarea ardatz hartuta sortu dugu Libertad pertsonaiaren militantzia eta borroka antifaxista klandestinoak; eta zilegitasun historikoari jarraituz, sare horretako zenbait pertsonaia historikoekin harremanetan jarri dugu. Batetik, Jesús Monzón nafarrarekin, zeinaren bitartez *operación renconquista* delakoaren berri izanen dute ikasleek. Miret anaiekin bestetik. Haien historia ezagututa, borroka antifaxistaz kontzientzia hartzeaz gainera, gaur egun *Santéko* kartzelan Parisko udalak Conrad Mireten izenean eta bere borrokaren errekonozimendu gisan plaka bat jarririk duela jakingo dute ikasleek, hain zuzen ere, nazien torturen biktima izanik hil zen tokian. Honek bide batez, hausnartzeko zer esana eman diezaieke, instituzio politikoetatik memoria historikoaren errekonozimenduan eman daitezkeen pausuen beharraz hain zuzen. Azkenik, Lise eta Artur Londonenen izenak irakurriko dituzte, zeinen bitartez kontziente izango dira, milaka eta milaka boluntario Gerra Zibilera brigada internazionaletan borrokatu zituzten II. Mundu Gerrako borroka antifaxista klandestinoan aritu baino lehen. Gestapok gainera, biak ala biak atxilotu eta esterminio zelaietara bidaliko ditu, Lise London zehazki Ravensbrückeko esparrura, zeinetan Libertad gure fikziozko pertsonaiarekin beste behin topo egingen duen.

### ***Ravensbrück esterminio zelaiak***

II. Mundu Gerrako holokaustoaz hitz egitean ia pertsonen gehiengoa lehenik eta behin judutarrekin gogoratzen da eta esterminio zelaietaz hitz egitean, Auschwitzekin. Jakin badakigu ordea, zoritxarrez holokaustoaren atzaparrak askoz ere toki eta biktima gehiago harrapatu zituela eta horiek izan dira gure ikasleei unitate didaktiko honen bitartez jakinarazi nahi izan dizkiogunak. Kasu honetan, jatorri eta ideologia askotariko emakumeen kontrako errepresio mota ezberdinen berri eta hau gauzatu zeneko esparruetako baten berri eman nahi izan zaie; zehazki, Ravensbrück esparruaren berri eta honetan gauzatu ziren errepresio formen berri.



Libertad, gure fikziozko pertsonaia, Miret anaien sarea erortzearekin batera atxilotuko dute eta Alemaniara bidaliko dute, milaka eta milaka emakumeekin egin zuten modura. Ikasleek, guk idatzitako eguneroko baten bitartez, naziek emakumeekin egindako zenbait basakeriak ezagutuko dituzte. Hau idazteko, bertatik pasatutako emakumeen testigantzak hartu ditugu ardatz; eta eguneroko honen bitartez halaber, bertan egondako zenbait emakumeri izen abizenak jarri dizkiegu. Hala nola, Neus Catalá izeneko emakume katalanari edo Vaillant Couturier emakume frantsesari.

### ***Francesc Boix, Mauthausen eta Nurenbergeko epaiketak***

Unitate didaktikoa diseinatzen geundela, produktura katalan batek Francesc Boix delakoaren inguruan egin zuen dokumentala ikusterik izan genuen. Hortik etorri zen gure unitatean txertatzeko nahia. Kasu honetan, Francesc gure fikziozko pertsonaia Libertaden ustezko bikotea da, Gerra Zibilean borrokan elkar ezagututakoak. Francesc Boixen bizitzaren bitartez ikasleek Mauthauseneko esparrua ezagutuko dute, zeinetara bidaliak izan ziren naziek preso hartutako espainiar errepublikar gehienak. Boixek zelaian izandako bizipenei esker bidenabar, honek Nurenbergeko epaiketetan egindako ekarpen ezinbestekoa ezagutuko dute; argazkilari gisa egindako lan klandestinoari esker, (zenbait negatibo ezkutatzea erdietsita), Nurenbergeko epaiketetan Mauthauseneko arduradun ziren hainbat SS zigortu ahal izan zirelarik. Boixen hilobiaren argazkiaren bitartez halaber, ikasleei Frantziako gobernuak nazien kontra borrokan jardun zuten pertsonetik aspaldi hartutako politika ezagutzera eman nahi zaie. Francesc Boixen gorpuzkiak esaterako, fosa komun batetik atera eta Père Lachaiseko hilerri paristar ospetsuan hilobiratu zituzten, bere lana aitortzen duen plaka bat hilobian jarririk.

### ***Ustatxak eta Titoren garaiko Jugoslaviako partisano brigadistak***

Curriculumek zein testuliburuek faxismoaren gaia oro har, Hitler eta Mussoliniren figurekin eta beraz, Alemania eta Italiarekin lotzen ohi dute. Alabaina, hau errealitate zabalago baten parte bat baino ez da. Izan ere, inspirazio faxistako erregimenak askoz gehiago izan ziren, horien artean, ikasleentzako aski ezezaguna den ustatxen erregimena Kroazian. Hauek nazien pareko errepresioa ezarri zuten II. Mundu Gerraren testuinguruan, horren adibide izanik besteak beste, Jasenovac izeneko estermínio zelaia. Curriculumeko hutsune hori betetzeko beharrak eraman gintuen Libertaden Memoriaren unitatean ustatxak sartzera. Unitate didaktikoaren une konkretu batean Libertad Titoren garaiko Jugoslavia bisitatzeraz joanen da eta era honetara, ikasleei erregimen sozialista honen berri eta baita, ustatxek utzitako arrakalaren berri emanen zaie. Baina ezagutza hauetatik haratago iritsi nahi izan dugu bidaia honekin. Izan ere, bi gai gehiago mahai gaineratzen dira unitatearen puntu honetan. Brigadista internazionalena batetik eta

ustatxek erregimen frankistaren eskutik jasotako inpunitatea eta asiloa bestetik. Alegia, Libertadek ustez Jugoslaviara bidaiatzen du Gerra Zibilaren garaian egindako lagun jugoslaviar partisanso bat bisitatzera, zehazki, Koka Popovic brigadista internazionalista. Unitatearen pasarte honetan halaber ikasleek jakinen dute, ustatxan arduradun nagusienak, besteen artean Pavelic ustatxan buruak eta Maks Lubiric Jasenovaceko esterminio zelaiaren zuzendariak, Espainian asiloa eskuratu zutela eta bertan lasai ederrean identitate faltsu batekin bizi izan zirela hil arte.

### ***Bestelako emakume nafarrak eta hauek egindako ekarpenak***

Jada unitatearen aurkezpenean argi gelditu den legez, unitate didaktiko honen xede nagusienetako bat izan da ikasleei zenbait emakume nafar ekintzaileen istorioak eta emakumeen eskubideen lorpenaren historia ezagutzera ematea. Zentzu honetan, ikasleek alde batetik, II. Errepublikaren garaian emakumeen eskubideen lorpenean egindako aurrerapausoak ezagutzeko parada izango dute. Bestetik, emakume konkritu batzuen bizitzak eta emakumeen kolektibo jakin batzuen ekimenak ezagutzeko aukera. Aipaturiko Uriz Pi ahizpez gain, unitate didaktikoan toki berezia duen bestelako emakume bat Julia Álvarez Resano dugu. Espainiako historian lehen emakume gobernadore zibila izandako sozialista hau une klabe batean agertzen da Libertaden bizitzan. Zehazki, Gursetik ateratzen lagunduko dion ustezko emakumea izanen baita eta aitzakia honekin, Julia Álvarezren figura ezagutuko dute ikasleek. Beste emakume baten istorioa ere agertuko da kutxan aurkituko duten gutunetako batean, zehazki, Camino Oscozena, nazionalen eskutik heriotza ezagututako emakumea. Honen eskutik, irakasle errepublikarren kolektiboak jasandako garbiketaren gaia mahai gaineratu nahi izan dugu. Azkenik aipatzea, Ezkabako gotorlekuan gertatutakoak eta bertako presoekiko emakumeek izandako elkartasun ekimenak bildu nahi izan ditugula ere, Libertaden ustezko ama sare honen partaide bilakatuz.

### ***Errepresio frankista***

XX. mendeko europar historia traumatikoa ikasleekin lantzea helburu duen unitate didaktiko batek ezin zuen errepresio frankista landu gabe utzi. Horregatik, gure fikziozko pertsonaia Libertadek errepresio frankista hau gertutik pairatuko du. Zehazki, bere inguruko ezagun zein lagunak eta bere gurasoak, zuzenki jazarriak izanen dira, aita fusilatuko dutela eta amak, beste emakume askok bezalaxe, mota guztietako errepresio eta zigorrak jasango dituela. Libertaden gurasoak jakina, fikziozko pertsonaia dira ere, eta horrek aukera eman digu, biak errepublikar ezkertiarrek egiteko, UGTren afiliatuak, ama irakaslea eta aita abokatua.

## **METODOLOGIA**

Unitatearen diseinua egiten hasi ginen unetik argi izan genuen paradigma konstruktibistan oinarrutuko genuela gure proposamena. Unitate didaktiko honen bitartez batetik, ikasleen pentsamendu kritikoa eta hausnarketa sustatu nahi dira eta bestetik, oinarrizko gaitasunen lanketa erreala aboratu nahi da. Alegia, esperientzia didaktiko honetan ikasitakoak haien eguneroko bizitzan aplikatzeko aukera ikus dezaten nahi dugu, hau izanik, egungo gatazka eta errealitate sozialak hobeto ezagutzeko bidea eta egunerokotasunari aurre egiteko bidea. Horregatik unitate didaktikoak ikaskuntza egoera bat planteatzen da. Honen bidez, zientziaren kompetenziari heldu nahi zaio, ikasleak, historia ikertzeko eta kausalitate historikoa lantzeko metodoetara hurbilduz, (testuen irakurketa, dokumentuen analisisa eta interpretazioa, ondorioak erdiestea..). Era berean, gaitasun zibikoa landu nahi da, ikasleengan, zenbait gaiekiko enpatia sustatuz eta haiekiko hausnarketara gerturatuz. Taldeko lana sustatze aldera, unitate didaktikoak modu kooperatiboan lan egiteko gakoak eskaintzen ditu, kooperatuz bakarrik lortzen ohi delako benetako ekipo lanari ekitea, ikaskuntza prozesua bera eta oinarrizko gaitasunen lanketa modu esanguratsuan aberastuz. Ekipo lanaren bitartez esaterako, komunikazio linguistikoa, ikasteko gaitasuna, gaitasun zibikoa... indartzen dira.

Aipatutako helburu didaktikoen lorpena erdiesteko unitate didaktiko honek hasieratik ikasleria erdigunean jartzen du, irakaslearen azalpen maisuentzako tokirik ez dagoela. Lehen unetik, ikasleek ekipo lanaren bitartez eta era autonomo batean jardun behar dute. Irakaslearen funtzioa alabaina garrantzia handikoa izanen da. Izan ere, irakasleak behatzaile eta laguntzaile lana egin beharko du eta premiazkoa ikusten duenean edo ikasleek eskatzen diotenean parte hartu. Irakaslearen paper hori ezinbestekoa izango da ikasleen ikaskuntza prozesua arrakastatsua suerta dadin, ezen prozesua bera behatzea eta zerbaitek ongi funtzionatzen ez duela detektatzea eta bideratzea; funtsezkoa da ekipoak ongi eta modu orekatuan egin dezan lan, produktu final duin bat aurkez dezaten, eduki historikoak modu egoki eta esanguratsuan barneratu daitezen, ikasleak haien kabuz ondorioetara irits daitezen, etab.

Bi izanen dira gure helburu pedagogiko hauen guztien lorpena erdiesten saiatzeko erabiliko diren metodologiak: zereginen bitarteko metodologia batetik, (ikaskuntza egoera baten planteamenduaren bitartez), eta ikaskuntza kooperatiboa bestetik.

### ***Zeregina/ Ikaskuntza egoera***

Zereginari dagokionez aipatzea, ikasleak lehen unetik zeregin baten ebazpenean lanean jarriko ditugu. Zeregina honakoa da: Ane Zaratiegi Ezker historialaria izanen bailitzan, Libertad Uriz Ugarteren bizitzaren berreraikipena egin beharko dute, Berlinetik jasotako kutxan dauden dokumentuak eta irakurgai izango dituzten eranskinak ardatz hartuta. Batetik, Libertaden bizitzaren berreraikipena erakusten duen mural grafikoa sortu beharko dute eta bestetik, irakasleak banatuko dien galdetegiaren txostena bete beharko dute. Lan hau burutzeko zazpi klase egun izanen dituzte eta biak ala biak, irakasleari entregatuko zaizkio ebaluatuko izateko. Maila indibidualean ere lan bat egin eta aurkeztu beharko dute ikasleek, hots, Libertaden bizitzaren narrazio historikoa. Azken hau ordea, nork bere etxean burutuko du.

Hau guztia egin ahal izateko ikasleek kutxa jasotzeaz gain, lan gida bat jasoko dute, zeinetan pausoz pauso azalduko den egunetik egunera egin beharreko lana. Zeregin handi hau beraz, eguneroko ataza ezberdinetan banatzen da, modu honetara lagundu nahi izan zaielarik lan prozesua antolatzen eta zazpi egunetan amaitzen.

### ***Ikaskuntza kooperatiboa***

Ikaskuntza kooperatiboari dagokionez aipatzea, funtsezkoa dela talde lana benetako ekipo lana izatea eta ez, pertsona ezberdinen lan indibidualaren uztarketarekin sortutako lana. IK/KIren bitartez kultura kooperatiboa sustatzen da eta guztien parte hartzea ziurtatzen da, hots, inklusioa. Erabakiak ekipoan hartu behar izateak guztien inplikazioa eta lanarekiko konpromisoa exijitzen baitu. Horregatik, egunetik egunera egin beharreko atazek eskatzen dituzten jarduerak zein ariketak, egitura kooperatiboei jarraikiz gauzatu beharko dira, (arkatzak erdira, irakurketa partekatua...). Era berean, ekipoa kide bakoitzak rol edo funtzio jakin bat hartuko du taldearen barruan, (lehen egunetik jada finkatuko dena). Taldeak laukoak izatea gomendatzen dugu, beti ere, zenbakiak laukoteak egiteko aukera ematen badute.

### **EBALUAZIO SISTEMA**

Ebaluazio sistema jarrai eta hezigarria erabiliko da, horretarako, IK/KI metodologiak proposaturiko ildoari jarraituko zaiolarik. Hau, jada irakasle zein ikaslearen gidan aurki daitezkeen kalifikazio eta ebaluazio tresnekin lagunduta gauzatuko da, hots, errubrika, behaketa eskala eta alderatze zerrenda ezberdinekin.

Ikasleek aurkeztu beharreko produktu finalaz gain, prozesua eta talde lana ebaluatzeko aukerak luzatzen dituen unitatea da honako hau. Irakasleak honetarako, eguneroko lanaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak izanen ditu eskura, eta baita ikasleek aurkeztutako materialak

ebaluatzekoak ere. Talde bakoitzak kalifikatuak izateko bi produktu aurkeztuko ditu. Batetik, ikaslearen gidan egunetik egunera gauzatuz joango diren kaiera edo koadernoak, (galdetegiak eta eguneko lanaren jarraipen taulak biltzen dituena). Irakasleak honetan oinarrituta behaketa eskala eta alderatze zerrenda batzuk beteko ditu, eguneroko lana eta ekipo gisa egindako lana baloratuz. Bestetik, Libertaden bizitzaren berreraikipena erakusten duen murala aurkeztuko dut ikasleek, irakasleak errubrika baten bitartez kalifikatuko duena.

Unitate didaktikoak halaber, aukera luzatzen dio ikasleriari ebaluazioren partaide izateko bete ahalko dituen errubrika batzuen bitartez. Errubrika hauek indibidualki beteko dituzte eta hauetan, talde gisa egindako lana, taldeko kideen arteko harreman eta kohesioa, aurkeztutako produktu finalak, taldekide bakoitzak egindako lan indibiduala eta betekizuna edo rola, etab. baloratuko dituzte. Errubrika hauek irakasleak jasoko ditu eta nota osatzeko erabiliko ditu, hain zuzen ere, taldeko lana eta lan indibidualaren notak.

Azkenik aipatzea irakasleak ere ikasle bakoitzak sortzen duen narrazioa ebaluatu eta kalifikatzeko errubrika bat izanen duela, zeinarekin ikasle bakoitzak bere nota indibiduala eskuratuko duen. Errubrika honen bitartez, ikasleek maila pertsonalean egindako lana, eskuratutako ezagutzak, erakutsitako gaitasun komunikatibo eta zibikoa... baloratuko dira.

## **BALIABIDEAK**

Libertaden memoria unitateak irakasleentzat zein ikasleentzat erabilgarriak diren baliabideak eskaintzen ditu. Irakasle gidan, unitatea aurrera eramateko oinarritzko gako guztiak biltzen dira. Ikasle gida, ikasle talde bakoitzari ezinbestean banatu beharreko materiala izanen da, ezen bertan, zeregina gauzatzeko eta egunez eguneko atazak gauzatzeko informazio guztia biltzen da, hau izanik, haien lana egiteko funtsezko erreminta. Honekin batera ikasle talde bakoitzari unitate didaktikoarekin banatzen den “Libertaden kutxa” emango zaio, zeinetan Libertaden ustezko dokumentu guztiak sartuko diren, alegia, gutunak, argazkiak, mapak, egunkari artikulua, dokumentu historiografikoak... Hauek guztiak Libertaden bizitzaren berreraikipena egin



*Kutxako argazki bilduma*

ahal izateko erabili beharko dituzte, baita, bere bizitzaren mural grafikoa egiteko ere.

## **BIBLIOGRAFIA (moldatzeko eta akaso bibliografia gehiago eransteko)**

Bibliografia zabala erabili da unitate didaktikoaren diseinurako. Honen artean, hiru liburuen irakurketa da bereziki gomendagarria irasleentzat Libertaden Memoria ikasleekin lantzen hasi aurretik:

- Manuel MARTORELL, Salomó MARQUÉS, M<sup>a</sup> Carmen AGULLÓ: *Pioneras, historia y compromiso de las hermanas Úriz Pi*, Tafalla, Txalaparta, 2018.
- Amaia KOWASCH VELASCO: *Tejiendo redes-Sareak Ehotzen*, Pamplona-Iruñea, Gobierno de Navarra, 2017.
- Carme MARTÍ: *La Paloma de Ravensbüeck*, Barcelona, Roca, 2019.

Bestelako bibliografia erreferentziak:

- AA.VV. (Autobús de la Memoria), *Penal de San Cristóbal / Ezkaba: derribos contra la memoria. San Kristobal /Ezkaba: hormak eraitsi oroimena harresitzeko*, Pamplona-Iruñea, Pamiela, 2011.
- Neus CATALÁ PALLEJÁ: *De la resistència i la deportació, 50 testimonios de mujeres españolas*, Barcelona, Generalitat de Catalunya, 2015.
- Jesús CENTENO, “Don Vicente, el monstruo de los Balcanes”, *Público*, 14 de febrero de 2009.
- Josu CHUECA: *Gurs, el campo vasco*, Tafalla, Txalaparta, 2006.
- Josu CHUECA, “Emakumeak II. Errepublikan, ikurra baino gehiago?”, *Argia*, 2035, (2006).
- Josu CHUECA, “Gurs, Euskaldunen kontzentrazio esparrua”, *Argia*, 1985, (2005).
- Joseba ECEOLAZA: *Camino Oscoz y otras historias del 36*, Berriozar, Cenlit Ediciones, 2017.
- Belén GARCÍA POZUELO, “El campo de concentración de Ravensbrück: castigo y cautiverio para más de 200 mujeres españolas”, *ABC*, 2 de agosto de 2018.
- Josefina GUERENDIÁIN CARO: *Nacida en Navarrería*, Pamplona-Iruñea, Sahats, 1996.
- Carlos HERNÁNDEZ, “Los deportados españoles en Mauthausen y los datos que deberían estar en los libros de historia”, *El diario.es*, 26 de enero de 2015.
- Montserrat LLOR, “Supervivientes españolas en el infierno nazi”, *El País Semanal*, 13 de junio de 2010.

- Manuel MARTORELL: *Jesús Monzón el líder comunista olvidado por la historia*, Pamplona-Iruña, Pamiela, 2000.
- Manuel MARTORELL: “Hermanas Úriz. Dos pedagogas navarras en el maquis español”, *Gerónimo de Uztariz*, 30-31, (2014-15), pp. 39-58.
- Pere PUJOLAS MASET: *9 ideas clave, el aprendizaje cooperativo*, Barcelona, Grao, 2018.
- Pere PUJOLAS y José Ramón LAGO (Coord): *Aprender en equipos de aprendizaje cooperativo, el programa CA/AC, (Cooperar para aprender/Aprender a cooperar)*, Barcelona, Octaedro, 2018.
- Miguel RIAÑO, “La olvidada y consentida tumba en Madrid del genocida fascista Ante Pavelic”, *El independiente*, 28 de diciembre de 2018.
- Salva RUBIO, Pedro J. COLOMBO, Aintzane LANDA: *El fotógrafo de Mauthausen*, Barcelona, Norma Editorial, 2018.
- Félix SIERRA, Iñaki ALFORJA: *Fuerte de San Cristóbal, 1938, la gran fuga de las cárceles franquistas*, Pamplona-Iruña, Pamiela, 2006.